

BESTELAKO XEDAPENAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

3271

EBAZPENA, 2018ko ekainaren 15ekoa, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria-rena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege-aurreproiektua.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege-aurreproiektua prestatu du, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legeak zehaztu bezala izapidetu behar dena.

Horregatik, legezko erregulazio hori betetzeko, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak eman zuen 2017ko urriaren 26ko Agindua, zeinaren bidez hasiera eman baitzitzaion Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legea aldatzeko lege-proiektua egiteko prozedurari, Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritza hau izendatuta legegintza-prozedura hau tramitatu behar duen organo gisa. Geroago, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2018ko martxoaren 21eko Aginduaren bidez, aurretiaz onartu zen tramitatu beharreko Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege-proiektuaren testua.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoari jarraituz, herritarren eskubide eta bidezko interesei eragiten dieten xedapen orokorrek entzunaldiaren izapidea igaro beharko dute. Era berean, xedapenen izaerak hala eskatzen badu, jendaurrean jarri beharko dira.

Erregulazioak Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei eragingo die; izan ere, Lege honetan arautu behar dira, prozedura horren baitan, herritarren eskubide edo interes legitimoiei zuzenean ukitzen bazaie, eta, betiere aurreikusitako salbuespen arrazoiren bat ematen ez bada, eman beharko diren kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak.

Hori dela-eta, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikularekin eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 83. artikularekin bat etorritz, aipatutako aurreproiektua jendaurrean jartzen da eta, horretarako, hogeit egun balioduneko epea ematen da hari alegazioak emateko, epe hori nahikoa dela iritzita. Epe hori iragarki hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da.

Azaldutakoagatik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura eta egitekoak ezarrituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretuaren 6.b) eta 14.1.e) artikuluetan xedatutakoarekin bat, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jendaurrean jartzea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Lege-aurreproiektua, egungo izapidetze fasean dagoen moduan eta hogeit egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.— Aurreko atalean xedatutakoaren ondorioetarako eta alegazioak aurkeztu ahal izateko, proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko

2018ko ekainaren 25a, astelehena

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Eusko Jaurlaritzako egoitza elektronikoko iragarki-taulan, www.euskadi.eus

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 15a.

Lege Garapen eta Arau Kontrolerako zuzendaria,
XABIER UNANUE ORTEGA.